

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialen Departamentuak Fundazio Publikoa sortzea onartu du hainbat gizarte-zerbitzu zuzenean kudeatzeko

Fundazioak, nagusien artean, Nafarroako Parlamentuko eta Gizarte Ongizateko Nafarroako Kontseiluko ordezkariak izango du, Gobernukoaz gain

Osteguna, 2018.eko abenduak 27

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialen Departamentuak Fundazio Publiko bat izango du hainbat gizarte-zerbitzu zuzenean kudeatzeko; hots, kontratazio publikoaren bitartez hirugarrenei esleitutakoak izan diren zerbitzuak. Hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuetako Zentroen inguruko atalak izango dira (lan eta gizarteratzea, haurtzaro eta nerabezeroaren arreta edo genero-indarkeriaren biktimen arreta osoa), Behaketa eta Harrera Zentroek ematen dituztenak; baita ere, haurtzaroa eta nerabezeroa babesteko arlokoak, eta eguneko zentroa, sormen berriko neurri judizialak betetzearren.

Fundazio Publikoa eratzea atzo egindako Gobernuaren azken kontseiluan onartu zuten, eta gaur goizean prentsaurrekoan aurkeztu du lehendakariordeak Nafar Lansareko zuzendari kudeatzailea den Paz Fernandezekin batera.

Eskubide Sozialen Departamentuak uste du komenigarria dela zerbitzuen prestazioa berreskuratzea, ematen dituzten funtzioen espezifikotasuna, “aholkularitza teknikoa, jardueren gaineko homogeneotasuna eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetan irizpide, erreminta eta metodologia komunak erabiltzea eta adin txikikoen babesgabetasunaren egoeren balorazioa” medio, azaldu du. Kasu guztietan, publikoki kudeatzeko sortutako zerbitzuak dira, beste zerbitzu publiko batzuen ikuskapen eta koordinazio lanak egiten dituzten neurrian, Gizarte Zerbitzuetako Zentroak kasu, eta, beste batzuetan, adin txikikoen babesgabetasunari dagokionean, administrazioak egin beharreko balorazio teknikoaren arduradunak dira. Gainera, ondorengo nabarmendu du: nahiz eta “egiten duten kudeaketa egokia izan”, horien izaera dela-eta, “zuzenean kudeatzea egokiagoa eta lerrokatuagoa da”.

Fundazioak burutuko dituen lanen artean aipatzekoak dira zerbitzuen plangintza eta programazioa, fundazioaren mendeko zentroen eta zerbitzuen kudeaketa eta jardueraren eraginkortasuna hobetzen duten erakundeekiko lankidetzak. Horretarako, Departamentuak fundazio publikoa sortzea hautatu du, horren gainean dagoen interes soziala nabaria baita, erakundearen izaerari (irabazi asmorik gabekoa) erantzuten baitio, eta prestazioen helburuak zuzenago lortzea errazten baitu, bestelako administrazio-unitateak sortzea saihestuta.

Fundazioaren Estatutu berriak atzo onartu zituzten, eta, bertan, Nafarroako Gobernuaren gehiengoaren presentzia eta hiru departamenturen ordezkariak izango dute, Nafarroako Parlamentuak hautatutako hiru ordezkariak eta Gizarte Ongizateko Nafarroako Kontseiluak hautatutako beste hiru ordezkariak gain. Osaera horrekin, zerbitzuen kudeaketa publikoarekiko integrazio osoa izatea ziurtatu nahi da, gardentasuna eta kudeaketa parte-hartzailea hobetzearekin batera, ekimen sozialeko erakundeekin adostutako pertsonak bertan izanik. Era berean, zerbitzu bakoitzerako batzorde teknikoak sortzea aurreikusi da, horien kudeaketa kalitatezkoa izan dadin.

Zentroak

Fundazioak Lizarra eta Tuteran eremu horietan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko 15 zona aurkitzen dira.

Zentroek hiru talde dituzte. EISOL, Pertsonak Gizarteratzeko eta Laneratzeko Taldea (gizartean baztertutako edo baztertzeko arriskuan aurkitzen diren pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko lan egiten du); EIAIA, Haurtzarora eta Nerabezarora Artatzeko Taldea (oinarrizko gizarte-zerbitzuei laguntza eskaintzen dien talde multiprofesionala eta espezializatua, haurtzarora, gaztarora eta haien familietan esku hartuaz eta bigarren mailako prebentzio-programak garatuaz); eta EIAV, Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Osoa eskaintzen dien Taldea (oinarrizko gizarte-zerbitzuei laguntza ematen die, biktimei informazioa, bidea eta laguntza ematearekin batera arlo ekonomikoan, lan-arloan eta alderdi psikologikoan). Foru Komunitateak zentro horien titulartasuna izan arren, horien kudeaketa eta prestazioa Pauma Fundazioaren bidez gauzatu da.

2017. urtean, aipaturiko bi zentroek 1.063 pertsona artatu zituzten: 481 Lizarran eta 582 Tuteran; kostua guztira 1.340.544, 96 eurokoa izan zen, eta zerbitzuak 37 lagunek eman zituzten (17 Lizarran eta 20 Tuteran).

Zehazki, Lizarrako Gizarte Zerbitzuen Zentroak EISOL taldean 153 pertsona artatu zituen; haurtzarora artatzeko taldeak (EIAIA) 79 familiako 156 adin txikiko, eta EIAV taldeak 172 emakumeri eman zien zerbitzua. Departamentuak 637.328,64 euroko inbertsioa egin zuen.

Tuterako Gizarte Zerbitzuen Zentroan, berriz, haurtzarora artatzeko taldeak 90 familiako 163 adin txikiko artatu zituen, lan eta gizarteratzeko taldeak 111 pertsonaren lan-ibilbideak antolatu zituen, eta genero-indarkeriaren emakume biktimei artatzeko taldeak 308 emakumeri eman zien laguntza, 703.216,32 euroko inbertsio publikoarekin.

Horrez gain, Fundazioa arduratuko da Behaketa eta Harrera Zentroak (BHZ) kudeatzeaz. Zentroek adin txikikoen babesgabetasun-egoerak baloratzeko eta kudeatzeko prozesuak burutzen dituzte, hala behar izanez gero, gurasoen guraso-ahala kaltetu dezaketen babes-neurriak hartzearekin batera, edota babesteko beharrezko neurriak ezartzeaz gain. Era berean, larrialdiko abegi-familien balorazio-programa kudeatuko du (7 urtetik beherako haurrak artatzen dituzte). Gaur egun, Nafarroan bi BHZ zentro daude, gatazkarena eta babesarena, eta, Ilundain Haritz Berri Fundazioak eta Xilmena Fundazioak kudeatzen dituzte, hurrenez hurren.

Gatazkaren BHZ Zentroa Ilundain Haritz Berri Fundazioak kudeatzen du 2005az geroztik eta babesaren BHZ Zentroa Xilema Fundazioak. 86 teknikaririk eman zien zerbitzua 257 adin txikikori 2017. urtean, eta 1.831.234 euroko inbertsioa egin zen. Bi zerbitzuetan plazak gehitzen diren heinean, inbertsioa ere gehitzea aurreikusten da. Gatazkaren BHZn egun 15 plaza daude, eta 18 izatera igaroko da, eta babesaren BHZn egungo 12 plazatik 15 plaza izango dira. Horrekin guztiarekin, Fundazioaren hasierako aurrekontua 4,7 milioi eurokoa izango da; hau da 136.000 euro (%3) gehiago. Horrela, zerbitzuak gehitu ahal izango dira; zehazki, kasuak bulegoko ordutegitik kanpo aztertzeko guardia-zerbitzua.

Eskubide Sozialetako lehendakariorde eta kontseilari Miguel Laparrak ondorengo nabarmendu du: “zerbitzu horien garrantzia dela-eta, komeni da kudeaketa fundazio publikoaren bitartez egitea, zerbitzuaren jarraipena bermatuaz profesional kualifikatuak eta esperientziadunak subrogatuta; profesional horiek aipatu fundazioetan egin duten lana oso egokia izan da”.

Behin fundazioa eratzea onartuta, datozen egunetan lege-proiektua bidaliko da Parlamentura, abian jartzeko beharrezko kreditua handitu dezan, eta zerbitzu ezberdinak aldatzeko egutegia ezarriko da.